

Haizea nora, zapiak hara

Koldo SAGASTI

2012an, Bartzelonan, Israelen aurkako Boikot, Desinbertsio eta Zigorren mugimenduaren nazioarteko bilkura antolatu zen, eta Hala Bedi irratiko beste lagun batek eta biok bertan parte hartu eta hainbat adituren testigantzak jasotzeko aukera izan genuen. Besteak beste, Mbuyiseni Ndlozi ekintzaile hegoafrikarra elkarrizketatu genuen. Ndlozik gertutik ezagutu zuen Apartheid erregimenaren bazterkeria-sistema, eta egun Israelgo kolonizazio-erregimenaren aurkako borrokalari nekaezina da. Garai hartan hasi berri samarra zen Israelen aurkako boikot-kanpainak Hego Afrikakoan zeukan erreferente nagusia; horregatik, galdetu genion, bere eskarmentuaren arabera, zerk eragin ote

zuen hango Apartheid erregimenaren gainbehera, zer momentutatik aurrera jabetu ziren sistemaren kolapsoa atzerazina zela. Data bat espero genuen, ekintza zehatz bat, baina ez, Ndlozik, oso seguru, zera erantzun zigun: «Modan jartzen hasi zen».

Azken asteotan duela hilabete pentsaezinak ziratekeen adierazpenak entzun ditugu zenbait agintariren ahotan, lema-kolpe diskurtsibo zirrargarriak. Imanol Pradalesek iradoki zuen Euskadi Irratiko mikrofonoetan CAF konpainiak «gogoeta etikoa» egin beharko lukeela Jerusalemgo tranbiaren proiektuan duen partaidetza dela-eta. Handik gutxira, Eneko Anduezak, auzi berari jarraiki, Lehendakariaren hitzak berretsi, eta erantsi zuen CAFek «lezio etiko han-

di bat eman lezakeela» Israelgo proiektua utziko balu. Ez dira ustekabeko adierazpen bakarrak izan. Egun batzuk geroago Ramiro Gonzalez Arabako Ahalduen Nagusiak Israelgo saskibaloi taldeak kanporatzeko galdegin zion Eurologari. Zertara datoz norabide-aldaketa zorabiagarri horiek? Ez dut uste bat-batean argitasuna ikusiko zutenik, aitzitik, nago testuinguru mediatikoak eta iritzi korronte nagusiek eraman dituztela joko-taulan jarrera berri bat hartzera. Izango da zuzentasun politikoa alderdiz aldatzen ari dela. Eta Ndlozik zioen bezala, kausa bat modan jartzen denean, ez dago irabazi arteko gertaera-katea geldituko duenik. Batzuk konturatzeko mahai gainean 680.000 hildako jarri behar izan badira ere. •

Hizkuntza eta pasioa

Asier AIESTARAN

Abuztuaren bigarren hamabostaldia. Mendi inguru baten peskizan eta leku berriribat ezagutu nahian, zoriak ere bere kartak jokatuta, Gosol herrixkan amaitu dugu. Bergueda eskualdea da, Bartzelona eta Lleida arteko mugan, Pedraforca mendi ikusgarriaren magalean. Berehala konturatu gara ez daudela Kataluniatik kanpoko bisitariak jasotzera oso ohituta. Gure zorionerako.

Inguruan katalan hiztun kontziente ugari egokitu zaizkigu. Katalanez egin digute lehen hitza ia beti, askotan baita bigarrena ere –nahiz eta guk gazteleraz erantzun behar izan–, eta katalanak ez garela konturatzearan hirugarrena gazte-

leraz egiten hasi direnean, mesedez eskatu diegu katalanez jarraitzeko lasai, den-dena agian ez baina jardunaren gehientsuena ulertzen diegula.

Goiz batean mendi bueltaxka egin dugu Moli de Gosol inguruan. Ur botila berriztatuta iturrira inguratu garenean, alboan eserita dagoen bertako bikote bati atentzioa eman dio gure artean euskaraz hitz egiteak. Esan diegu baietz, oraindik bagaudela euskara hutsean hitz egiten dugun familiak Euskal Herrian. Ilusioa egin die hori entzuteak eta dezente luzatu den solasaldia abiatu dugu. Gizonezkoak futbol kontuak atera ditu: Atotxa ezagutu zuela –hura bai futbol zelaia!–, Goikoetxeak Maradona

ehizatu zuen egunean San Mamesen zela, Boixos taldeko kidea izan zela baina uztea erabaki zuela... Emakumeak ere ezagutzen omen du Euskal Herria, abesbatzarekin egindako bidaiei esker.

Hizkuntzaz ere pasioz jardun dugu: ze injustua den gure hizkuntza babestu nahiari inposaketa deitzea, inposaketa beraiena dela, 31 eskutik eduki eta hala ere tranpetan jarduten direla...

Eta halako batean ekonomiaz hasi zaizkigu: Kontzertu Ekonomikoa miresmen dutela, zenbat ordaintzen dioten Estatuari, Estatuak zer portzentaje kudeatu nahi duen... Arrazoiak dutela jakinda ere pasioa amaitu egin da, eta “adeu” esanda aurrera jarraitu dugu. •